



ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: ORGANOA

2022-03-11

Nori zuzenduak?

Graduko Organo interpretazio ikasketak **Musikenen** egiteko interesa duten musika ikasleei zuzendua

Sarrera probak 2022-2023 edo 2023-2024 ikasturteetan egin behar dituztenen izen-ematea onartuko da. Musikene jasotako izen-emate kopuruaren arabera onarpen eskubidea gordeko du.

Jardunaldia aurrez aurre egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **izena emateko orria** betez. Epea **2022ko martxoaren 7an** amaituko da.

Jardunaldiaren helburua

Organo interpretazio Gradua egin nahi duten ikasleei informazioa eta orientazioa ematea: sarrera proben egitura, eskatzen den maila, espezialitatearen eta ikasketa planeko irakasgai ezberdinen helburuak, bai eta irakasleak ezaqutzea ere.

Non egingo den

Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia
Europa Plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián
Telefonoa: 00 34 943.023.750
E-maila: info@musikene.eus
<https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Jardunaldiaren egitura

LANDART, Esteban

9:30 Bilera informatiboa, bertan azalduko dira **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa planak, osatzen duten irakasgaiak eta irakasten dituzten irakasleak, **Musikene** eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, sarrera proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak. Ikastegiari bisita gidatua egingo zaio.

10:30 Usurbilgo Salvatore elizara joatea

11:00-14:00 Usurbilgo Salvatore eliza. Esteban Landart irakaslearen eskutik eskola irekiak Musikeneko ikasleei eta jardunaldian parte hartzen duten ikasleei (errepertorio erromantikoa, sinfonikoa edo garaikidea). Cavaillé-Coll/Mutin 1907/1920 III+P/46 organo sinfonikoa.

<http://organos.gipuzkoakultura.net/html/organos/usurbil.html>

15:00-17:30 Donostiako Loiolako eliza. Esteban Landart irakaslearen eskutik eskola irekiak Musikeneko ikasleei eta jardunaldian parte hartzen duten ikasleei (errepertorio barrokoa edo garaikidea). Klais II+P/17 organoa

<https://orgelbau-klais.com/m.php?tx=22>

Organo jardunaldiari buruzko informazio gehiago jasotzeko jarri harremanetan José Antonio Candaudap Teklatu eta Kantu Departamentuko buruarekin: jcandaudap@musikene.eus